

# Juantxo Ziganda Zilbeti. Euskaldunberri, irakasle, itzultzaile.

XABIER OLARRA ETA FERNANDO REY

Joan zaigu mundutik, baina ez amorratuta. Sufrituz joan da, baina ez etsita edo irribarrerik gabe.

50 urte bete berritan hil da, gazterik, gaurko neurrietan kontatuz gero. Urte eta erdi eman zuen borrokan 2007ko udaberrian biriketako minbizia diagnostikatu ziotenetik. Eritasunaren prozesuan ez genion, haatik, amorrutik hitzik aditu. Minak min, konplikazioak konplikazio, izuak izu, gogo onez onartu zituen mediku-erizainek proposatutako sendabide eta tratamenduak. Adiskidetako balio zuen bezala, gaixotako ere erraza zen, “se accepta” batekin amenez eman beharreko pauso bakoitzari.

Gogorra bezain atsegina izan da haren ondoan egotea denbora honetan guztian. Gogorra, ez baita xamurra estimatzen duzun norbait maldan behera ikusteak. Baina atsegina eta eskertzeko modukoa ere bai, animoso ateratzen baikinaren bisita bakoitzetik, gaixotasuna eta sufrimendua zeinen

aldarte onarekin, zeinen umoretsu eta zenbaterainoko patxadaz eta bakeaz onartzen zituen ikusita.

Atea jo gabe etxera sartzen zaigun oinazearekin tratatzen jakitea, omen, zorientasunerako giltza.

“X izpiek dena erretzen badute, barnekoa barne, zergatik ez dituzte zelula kantzerigeno horiek behingoz kiskaltzen!”. Esperantzaz ekin zion prozesuari, otzan, esaneko.

Umorez egin zion aurre gaixotasunari. “Niri Biritxiturako mailetak egiteko esaten ez didaten bitartean...”, esaten zuen Iruñeko hilerria dagoen parajerako azken bidaiari muzin egin nahirik. Eta botikek eta kimioterapiak huts eginda ere, “niri testamentua prestatzeko esaten ez badidate...”.

Baina azkenean joan zitzaigun, goxo, Juantxo, *Xorro*, *Saurio*, gure tronboi-jolea.

Juantxo Ziganda euskaldun berria zen, euskaldun berri zaharra, alegia, gazte-gazterik euskaldundu eta euskara oso barne-

ratua zuena, euskara biziarekin lotura estua zuena. Iruñean euskaldundu zen gaztetan, baina beste iturri batzuetatik ere edan zuen euskara: aita Beuntzakoa zuen, Atezkkoa, eta ahaide franko zituen Atez-Imotz-Odieta-Ultzama inguruan. Eta aise antzematen zitzaion kutsu hori, goi nafarrerarena, hegoaldeko zenbait ñabardura eta guzti.

Euskaldundu, eta gazte-gaztetan hasi zen irakasle ere, garai hartako beharrak handiak baitziren. Zenbait urtez egon zen irakasle Nafarroako Gobernuak 1980ko hamarkadan antolatutako CIE zerizten ikastaroetan (euskara ikastaro trinkoak), baita irakasleen birtziklajean ere. Han ezagutu zituen Nafarroako Diputazioko lehenbiziko bi teknikari-itzultzaileak, gerora maisu-maistren irakasle bihurtuak: Joxe Bernardo Jauregi eta Javier Tirapu, *Txapas*, biak ala biak Juantxo eraman duen gaitz berak berriki samar eramana.

1988an, berriz, itzultzaile lanposturako aurkeztu zen gurekin eta azken urteotako beste lankide batzuekin batera. Lanpostua eskuratu eta beste sei lagunekin batera, lehenbiziko Itzulpen Unitatea sortu zen Nafarroako Gobernuan. Nafarroako Aldizkari Ofizialaren euskarazko alearen sorrera ere, beraz, haren eta beste batzuen fruitua izan zen.

Zenbait urtez itzulpen lana alboratu eta, Hizkuntza Politikako arduradunek proposatuta, euskara teknikari lanetan aritu zen. Orduko proiektu eta lan aipagarriak dira Euskaltzaindiarekiko koordinazioa eta Nafarroako Udaletako euskara teknikarien sarea sortzea eta koordinatzea.

Ondoren, berriz ere itzulpen lanera itzuli eta hartan aritu zen 2008ra arte.

Bere euskaltzaletasuna, gure hizkuntzaren arlo batzuetan ere landu zuen, bere auzo kuttunean bereziki. Zeren, gurasotu, eta bere emazte Kontxesiren eta bien umeak eskolatu beharra izan zenean, gogotik egin baitzuen lana Arrotxapean D eredia irekitzeko. Guraso talde gogotsua bildu zen, Ave María ikastetxe publikoan D eredia sor zedin bulkaka ibili, eta pixkana-pixkana euskal lerroa indartu zen, gerora Patxi Larraintzar eskola publikoa bihurtuko zena. Arrotxapeko eskola horretan arras ezaguna eta maitatua izan da beti Juantxo bere ekarpenagatik.

Gutako beste asko bezala, auzoko papearak eta panfletoak euskaratuz trebatu zen hasieran itzulpengintzan. Gero, Igela argitaletxea Iruñean jaio eta laster, 1981ean, Juantxok aukera izan zuen, Erreinu Zaharreko beste multxo batek bezala, literatur itzulpenean ere trebatzeko.

Bi liburu euskaratu zituen Juantxok, biak Igelaren Sail Beltza bildumakoak: Jim Thompson estatubatuarrena lehenbizikoa, *Ihesa*, 1991n, eta *Ttu eginen dut zuen hilobietan* bigarrena, Boris Vian frantsesarena, 1993an. Biak argitaletxeak proposatu zizkion eta lana zintzo bete zuen. Gaztetan irakurle amorratua izana zen, nonbait, eta behin baino gehiagotan Julio Verne eta gazteentzako literaturako beste zenbait autore ere proposatu zizkion Igelari euskaratzeko, baina beste hainbaten kasuan gertatu den bezala, asmoetan gelditu zen.

Joan zaigu, baina gurekin da oraindik, mutil handia baitzen, handiegia... osorik eta erabat joateko.

## ERANSKINA:

### Aintzin solasa

1946.eko uztail aldera ezagutu zuen Jean d'Halluinek Sullivan, frantses-amerikar bilera moduko batean. Handik bi egunetara, Sullivanek eskuizkribua eman zion.

Bitartean, bere burua Zuria baino gehiago Beltza sentitzen zuela erran zion, mugaz haratago egon arren; urtero, 'Beltz' milaka batzuk (legeak halakotzat jotakoak) erroldetatik desagertu eta etsaiaren alderdira jotzen dutela gauza jakina da; Beltzak nahiago izateak, literaturako Zuriak bizkarrean kolpetxo gozoak ematen dizkieten 'Beltz On'enganako mezprezua sorrerazten zion Sullivani. Bere ustetan, ez zen imaginatzen ahal ezta atzeman ere Zuriak bezain 'gogorra' izan zitekeen Beltzik. Horixe bera zen bere nobela ttikian frogatu nahi izan zuena. Jean d'Halluinek, lagun baten bidez nobela haren berri jakin bezain fite, argitaratzeko eskubideak eskuratu zituen. Sullivanek, berau argitaratzaile amerikarrekin harremanetan jarri eta bere herrian bertan argitaratzeko eginahalak alferrekoak zirela ohartu baitzen, ez zuen eskuizkribua Frantzia uzteko zalantza haundirik izan.

Hemen, gure moralista ospetsuek zenbait orrialderen... errealismo latzari oztopoak paratuko dizkiote. Horri buruz, interesgari iduritu zaigu orrialde horien eta Milleren narrazioen artean dagoen alde sakona azpimarratzea; azken honek ez du hiztegi larriena erabiltzeko duda izpirik ere sekula erakusten; Sullivanez, aldiz, idazkera larriaren ordez erramolde eta perifrasiak erabiliz, zuzenki mintzatu beharrean sugeritu egiten duela ematen du, hola, bada, tradizio erotiko latinoago baten barrenean kokatzen ahal dugu.

Orrialde hauetan, beste aldetik, J. Cainen eragin nabarmena agertzen zaigu (egileak, nahiz lehenbiziko pertsona erabiltzen duen, ez du ez idatzizko ez bestelako trukoen bidez horren erabilera justifikatzeko eginahalik egiten, eta kontuan hartu behar da J. Cainez, berriz, haren *Three of a Kind*, Ameriketara bakarrean bildutako hiru nobela motzen bilduma eta hemen Sabine Berritzek itzultitakoa den liburuaren aintzin solas bitxian lehenbiziko pertsona erabili beharra aldarrikatzen duela), eta baita Chase eta beste zenbait horrorezale gazteagoren eragina ere. Puntu horren gainean, Sullivanek bere aintzindari ospetsuek baino sadismo gogorragoa erakusten digula aitortu beharra dago; ez da harriztekoa bere lana Ameriketara baztertua izatea: argitaratu eta bihamunean baietz debekatuko luketela eginen nuke apustu. Mamiari berari dagokionez, zernahi erranik ere, orain ere laidoa sufritu eta kokildua dagoen arraza batek mende-kuarekin duen plazerraren adierazpen gisa ikusi behar da, 'benetako' Zuriak menpekotasunaren kontra jotzen duen sorginkeria saio bat bezala, hala nola neolitikoko gizakiek, hilgaiak xederetara erakartzeko, azkonek zauritutako bisonteak margotzen baitzituzten, hau da, itxurari mesprezurik aski agertuz eta irakurlearen gustuari kontzesioak eginaz.

Baina ai, Amerika, Promisioko herria izateaz gain, puritanoen, alkoholzaleen eta sar-zazu-hau-zero-rren-kaskoan erramoldeko moduko herria ere badugu: eta saiatzen bagara, Frantzia, bitxiagoa delarik gainera, ez da batere lan zaila, Atlantikoaz beste aldean, baliagarria dela frogatu duen formula batez lotsarik gabe baliatzea. Zer erranen dut? Ez da jeneroa saltzeko modu txarra.

BORIS VIAN\*

---

\* Oharra: Nobela hau, eta beste hauek, *Les morts on tous la même peau*, *Et on tuera tous les affreux*, eta *Elles se rendent pas compte* Boris Vianek lehenbiziko argitarapenetan, *Vernon Sullivan* izengoitiaz sinatu zituen. Gero Vianek argitu zuen marroa.

**Juantxo Ziganda Zilbeti. Euskaldunberri, profesor, traductor**

Murió recientemente, relativamente joven, si tenemos en cuenta la esperanza de vida de nuestro entorno, al año y medio de haberle diagnosticado un cáncer del pulmón.

Se enfrentó a la enfermedad con cierto humor, que no abandonó hasta el último momento: “A mí, mientras no me digan que prepare las maletas para Berichitos...” (Zona donde está situado el cementerio de Pamplona).

También con un cierto resentimiento contra la ciencia: “Si los rayos X lo queman todo, por qué no serán capaces de quemar todas estas células cancerígenas!”.

Era un euskaldunberri que aprendió euskara en su juventud: su padre era de Beuntza y tenía familia en Atetz-Imotz-Odieta-Ultzama. Por eso su euskara tenía el deje alto-navarro que aparece también en las obras que tradujo.

Tras la primera oposición para la creación de la Unidad de Traducción del Gobierno de Navarra entró en 1988 como traductor en dicha unidad oficial, creada según lo establecido en la Ley del Euskara de 1986. También ejerció durante un tiempo como técnico de euskara en la Dirección General de Política Lingüística y fue persona clave en el establecimiento de la línea D en el colegio público Ave María de la Rochapea.

Como otros muchos se inició en la traducción en euskara traduciendo pequeños textos y panfletos en su barrio, y tras varios años de duro trabajo como traductor de textos jurídicos y administrativos, hizo una incursión en la traducción literaria con dos textos inolvidables de los autores de novela negra Jim Thompson y Boris Vian: *Ihesa* (The Getaway) y *Ttu eginen dut zuen hilobietan* (J'irai cracher sur vos tombes), publicadas ambas por Igela, en 1991 y 1992 respectivamente.

Se fue, pero no del todo, porque era demasiado grande para irse entero.

### Hommage à Juantxo Ziganda Zilbeti

Il est décédé récemment, à un âge encore jeune, si nous tenons compte de l'espérance de vie actuelle, un an et demi après qu'il lui ait diagnostiqué un cancer du poumon.

Il a affronté la maladie avec un certain humour, qu'il a maintenu jusqu'au dernier moment : « Moi, tant qu'on ne me dira pas de préparer la valise pour aller à Berichitos (nom de l'endroit où se trouve le cimetière de Pampelune) ... »

Ainsi qu'avec un certain ressentiment à l'encontre de la science : « Si les rayons X brûlent tout, pourquoi ne sont-ils pas capables de brûler toutes ces cellules cancérigènes ! »

Il a appris le basque pendant sa jeunesse : son père était de Beuntza et il avait de la famille à Atetz, Imotz, Odieta et Ultzama. Ce qui explique que son euskara avait un accent haut-navarrais qui apparaît aussi dans les œuvres qu'il a traduites.

Lors du premier concours pour la création de l'Unité de Traduction du Gouvernement de Navarre, il fut engagé en 1988 comme traducteur de cette institution officielle, créée en vertu de la Loi de l'Euskara de 1986. Il travailla aussi pendant un certain temps en tant que technicien d'euskara à la Direction Générale de Politique Linguistique et il joua un rôle prépondérant dans l'établissement du modèle d'enseignement D au lycée public Ave María de la Rochapea.

Comme beaucoup d'autres, il s'initia à la traduction en euskara en traduisant dans son quartier de brefs textes et pamphlets, et après plusieurs années d'un dur travail en tant que traducteur de textes juridiques et administratifs, il fit une incursion dans le domaine de la traduction littéraire avec deux textes inoubliables appartenant respectivement aux auteurs de roman noir, Jim Thompson et Boris Vian : *Ihesa* (The Getaway) et *Ttu eginen dut zuen hilobietan* (J'irai cracher sur vos tombes), publiés par la maison d'édition Igela, le premier en 1991 et le second en 1992.

Il nous a quittés, mais pas tout à fait, car il était trop grand pour partir entier.

### Homage to Juantxo Ziganda Zilbeti: Non-Native Basque Speaker, Professor, Translator

Juantxo Ziganda Zilbeti died recently and relatively young, given modern life expectancy, a year and a half after being diagnosed with lung cancer.

He faced his illness with a certain humor, which did not abandon him even at the end: "As long as they don't tell me to pack my bags for Berichitos..." (the neighborhood of the cemetery in Pamplona).

And also with a certain resentment toward science: "If X-rays burn everything, why can't they burn all these cancer cells!"

He was a non-native Basque speaker who learned Basque in his youth. His father was from Beuntza and he had family in Atetz-Imotz-Odieta-Ultzama. Thus, his Basque had the High Navarrese flavor that also appears in the works he translated.

After initial opposition to the creation of the Translation Unit of the Navarrese Government, which was established under the 1986 Law of Basque, he entered the organization in 1988 as a translator. He also worked for a time as a Basque language expert for the General Committee on Linguistic Policy and was a key figure in the establishment of Line D (instruction given primarily in the Basque language) at the public school of Ave Maria de la Rochapea.

Like many others, he began translating Basque with small texts and neighborhood pamphlets and, after several years of hard work as a translator of legal and administrative texts, he made his debut in literary translation with two unforgettable texts by crime novel authors Jim Thompson and Boris Vian: *The Getaway* (Basque title, *Ihesa*) and *J'irai cracher sur vos tombes* (*I Spit On Your Graves*; Basque title, *Ttu eginen dut zuen hilobietan*), both of which were published by Igela, in 1991 and 1992, respectively.

He is gone but something remains, for he was too great a man to leave entirely.